

Zumarragan, 2020ko Apirilaren 15an.

ELAk, beste batzuen artean gure zentroaren aurkako salaketa bat jarriko zuela iragarri zuen duela egun gutxi. Egoera dramatiko da bai, eta salatu egin behar da, horretan denok gaude ados. Baina oso argi daukaguna baita ere zera da ezin direla langileak erabili norberaren onurarako eta propaganda sindikalerako, eta, beraz, egiak esan behar dira langile klasearen kontra ez joateko.

ELAk langileen osasunerako, bizitzarako eta osotasun fisikorako eskubidea urratu dela salatu du, eta zuzendaritzari langile guztientzako probak eta lan egiteko beharrezkoak diren norbera babesteko materialak exijitzeko eskatu diote, protokoloak bete ditzan...

Zenbait langilek, prentsaren bidez jakin genuen zentroari salaketa bat jarri zitzaiola, hori horrela izanik, ELAko ordezkari sindikal batengana jo genuen azalpen eske. Honek, Goierrin sektorearen arduran duen liberaturengana bideratu gintuen eta azken honek informazioa ukatu digu.

Pertsona askorengan eta batez ere gure egoiliarren senitartekoengan (egoera honek izugarrizko kezka eta ezinegona eragiten bait die) sortu zezakeen alarmak eta izan dezaketen edozein zalantza argitzeko, honako xehetasun hauek eman nahi ditugu:

Komunikabide batzuetan azaldu bezala, langile eta egoiliar guztiei egin zaizkie probak, gutxi batzuk geratzen dira azken emaitzaren zain. Oso konsziente gara egoera oso latza dela eta ez garela ari gustatuko litzaigukun bezala lanean, egoera honen erantzuleak salatu behar dira noski, baina oso argi izan behar dugu nortzuk diren horiek. Erabat ados gaude, gure sektorea, oso alderatuta egon dela, eta krisi momento honetan babes instituzional handiagoa jaso behar genuela. Horretaz aparte, bizi dugun krisi une honen aurrean, salaketa jarri duten horiek ez dute inongo momentutan ez kritika konstruktiborik egin ez eta egoeraren inguruan informazioa edo eman den formakuntza baino gehiago jasotzeko ahaleginik egin ere. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiegu gainontzeko lankideei, beren burua formatzen, informatzen, beren onena emanten ari diren horiei guztiei, eta hori ere aitortu beharrekoa da, poliki-poliki argitara ateratzen ari bada ere asko dagoelako oraindik egiteko.

Babes pertsonalerako ekipamenduaren inguruan, jakin badakigu ez dugula nahikoa material egoki jaso horren ardura duten intituzioen eskutik eta aldundia ere eskas ibili dela. Baina, hori dena kontuan harturik, aitortu eta errekonozitu behar dugu langile askok egin duten eta egiten jarraitzen duten ahalegin eta lan guztia, besteak beste Matia Fundazioko farmaziako talde osoak eta zerbitzu hortan laguntzen aritu diren langile guztiek, erakundeen aldetik emandako material eskasiaren aurrean, ahal den

modurik seguruenean lanean aritzeko gogor aritu bait dira, esate baterako, Txinatik jaso ditugun maskarak lortzeko izugarritzko ahalegina egin bait dute. Horretaz aparte, protokoloak berrikusten erakundeko beste hainbeste pertsona aritu dira, ordutegirik gabe, goizetik gauera, astegun zein jai egun lanean, Osasun Ministerio zein beste erakunde batzuek egunez egun emandako ordena berri guztiak eguneratzen eta era praktikoan eta ulerkorrean guri helarazten. Horren adibide ditugu Matia Fundazioko erresidentzialeko zuzendari mediko zein erizaintzako zuzendaria, zentroko erreferentziazko lan taldearen ondoan aritu direnak lanean, zentroan bertan, esan bezata, zentroko zuzendariaren, erresidentzialeko medikuaren eta erreferentziazko erizainaren ondoan. Gauzak horrela, inongo momentutan, ELAko ordezkari bakar batek ere ez du inolako ekarpenik egin talde honetan.

Azkenik, argitu behar dugu Zumarragako Ospitaleko etxez-etxeke ospitalizaziozerbitzuaren laguntza izan dugula hasiera-hasieratik; batera aritu gara lanean kasu bakoitza era koordinatuan eta talde lanean landuz.

Esandakoak esan ondoren eta langile guztiak egiten ari garen ahalegin guztiaz oso kontziente izanik, lan-baldintza duinak eskatu gabe ezin gara geratu. Bada garaia hitzarmen eta ratio duin batzuk izateko, izan ere, egoera hau, hobeto edo okerrago, langile guztiak ari gara aurrera ateratzen. Osasuna galtzen ari gara gure lanpostuetan eta horregatik erantzunkizunak eskatzen ditugu, BAINA ELA, DENAK EZ DU BALIO!!!!

Finean eta gure aldarria da ez dugula nahi, inork, hondamendi hontantik errentagarritasunik ateratzea. Eta noski, salatzea, urte asko direla zaintzaren sektorea babesgabe utzia izan dela bai erakundeen aldetik eta baita sitemaren aldetik ere, edo hobe esateko, ez zaiola sekula behar duen aitortza eta babesa eman. Argi daukagu sistema publiko eta integratu bat behar dugula lehen bait lehen eta ez orain arte bezala, alboratua izan den sektore bat. Baina berriz diogu, egoera delikatu hau norberaren onura eta intereserako erabilia bada, salaketa hori aurkeztu ez dugun langileok PLANTO EGITEN DUGU!!!! Nahikoa da beste langile batzueganako harrokeria eta ez dugu bidegabekeriarik onartuko!

Beronika Pita

Eta beste 8 langile, etxean gaixo eta isolatuta daudenak.